

Behatokia

Euskal LGTBI+ Behatokia

Observatorio Vasco LGTBI+

PRENTSAURREKOA.

2022ko EKAINAREN 27an

ORDUA: 11:00 am

NON: GANBARA aretoa.

La Bolsa Udaltegia, Pilota kalea 10, Bilbo

Euskal LGTBI+ Behatokia / Observatorio Vasco LGTBI+ behatokiak bere lehen urteurrena bete du, eta, beste behin ere, Duintasuna eta Errespetua eskatzen ditu LGTBI+ pertsona guztientzat, duela 53 urte, 1969ko ekainaren 28an, New York hiriko Stonewall-en izandako matxinadekin hasi zen harrotasuna ospatzen dugun honetan.

Lorpen garrantzitsu batzuk ospatuz hasi nahi dugu:

- **Hemen eta orain ez gaituzte** sutan erretzen, inkisizioak egin ohi zuen bezala. Baina beste herrialde batzuetan legez hil gaitzakete.
- **Hemen eta orain ez gaituzte**, geu izateagatik, **kartzeletan edo psikiatrikoetan sartzen**, ezta bortxazko lan-eremuetan ere, lehen egiten zuten bezala, Alferren eta Gaizkileen Legea eta haren ondorengo Arriskugarritasunari eta Gizarte-errehabilitazioari buruzko Legea (1979ko erreforma) aplikatuz, edo, azkenik, eskandalu publikoaren delitua aplikatuz (1988ko erreforma). **Askeagoak gara!!! duela 34 urtetik hona!!!** nahiz eta munduko dozenaka herrialdetan oraindik ere legez espetxeraten gaituzten, gizartearentzat arriskutsuak garelakoan.
- **Gainera, jada ez gaituzte gaixotzat eta patologiak dituzten pertsonatzat hartzen.** Hala, OMEk 1990ean onartu zuen homosexualitatea ez dela gaixotasun bat, eta, ondoren, 2018an, transexualitatea ere ez dela, nahiz eta generoaren “inkongruentzia” gisa katalogatzen duen (hala dago **indarrean 2022tik**).
- **Eskubide batzuei dagokienez, legezko berdinketa formala lortu dugu** gainerako herritarrekiko. Adibidez, **ezkontza igualitarioa** eta edozein pertsonak **adoptatzeko aukera izatea**, orientazio afektibo-sexuala edo sexu- edo genero-identitatea edozein dela ere. Eskubide horiek erabili nahi baditugu, jada ezin zaizkigu ukatu.
- Bai eta **personen sexuari buruzko erregistro-aipamena zuzentzea arautzen duen 2007ko Legearen** bidez ere. Euskadin, 2012an osatu zen gaur egun **erreforma-bidean** dagoen 14/2012 Legearekin, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoarekin.

Hala eta guztiz ere:

- **Intersexualitateak patologiatzat hartzen dira oraindik**, eta ez beste giza aniztasun bat bezala. Euskadin eta Estatuko beste leku batzuetan, **bizitzeko beharrezkoak ez diren kirurgiak egiten dira oraindik**, ezarritako kanon binarioetatik kanpo geratzen diren sexu-ezaugarriekin jaiotakoan gorputzak arautzeko. **Intersexualen I letra da oraindik ere kolektiboaren letrarik ikusezina.**

- **Estatuko leku askotan, baita Euskadin ere, legezkoa da Sexu Orientazioa eta Genero Identitatea edo Adierazpena Aldatzeko Ahaleginak egitea** (bihurketa-terapiak, abertsio-terapiak edo baldintzapenaren kontrako terapiak gisa ezagutzen dira, eta terminologia horrek sostengu medikoa ematen die, halakorik ez badute ere).
- **Gorrito-diskurtsoak eta gorrito-delituak ugaritu egin dira** hainbat faktoreri esker: eskuin-muturra erakundeetara iristea, feminismoaren sektore trans-baztertzaille baten deriba totalitarioa, gure errealitatearekiko entzungor eta urrun dagoen botere judizial baten jardunak, eta beste alde batera begiratu duten alderdi politiko batzuen jarrera.
- Estatu mailan, huts egindako saiakera, aurkeztutako proposamen eta egindako zenbait protestaren ondoren, gose-grebak barne, badago **trans pertsonen berdintasun Erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI eskubideak bermatzeko legegintza-proiektu bat**, azkenik, 2022an onartzea espero dena. Testu horrek ez ditu, urrutitik ere, espektatibak betetzen, ez eta jasotzen luzaroan eztabaidatu diren eta azaldu diren eskarien zatirik handiena, nahiz eta espero dugun beste urrats bat izango dela LGTBI+ pertsonen eskubideak **giza eskubide** gisa onartzeko bidean.

EUSKAL LGTBI+ LEGE INTEGRAL BAT ERREIBINDIKATZEN DUGU

Autonomia-erkidego mailan, 2014tik aurrera, LGTBI+ kolektiboaren eskubideak bermatzeko edo ez diskriminatzeko legedi autonomikoak eta lege-proiektuak aurkeztu dira. Hainbat erkidegotan araudi espezifikoak ere badaude pertsona transexualentzat eta transgeneroentzat.

Nafarroatik Gaztela-Mantxara edo Kanarietara, **goraipatu beharreko adibide asko daude**; izan ere, erkidego horietan dauden LGTBI+ elkarteek, elkar hartuta, eta kasuan kasuko erakunde legegileetan ordezkaritza duten alderdi politikoek elkarrekin lan egin dute, eta elkarri entzun diote, testu horiek adosteko eta onartzeko. Honako hauek ditugu: **Andaluzia** (2014 eta 2017), **Aragoi** (2018), **Balearrak** (2016), **Kanariak** (2021 eta 2014), **Kantabria** (2020), **Gaztela-Mantxa** (2022), **Katalunia** (2014), **Valentzia** (2018 eta 2017), **Extremadura** (2015), **Galizia** (2014), **Madril** (2016), **Murtzia** (2016), **Nafarroa** (2017), **Errioxa** (2022). Azkenik, aurreproiektuak dituzte **Asturiasek** (2018) eta **Gaztela eta Leonek** (2020). Ziur aski, Vox gobernuan sartu izanagatik, azken erkidego horretan inoiz ez da lege bihurtuko.

Euskal Autonomia Erkidegoa da salbuespen bakarra, Ceuta eta Melilla hiri autonomoekin batera. Ez dugu aurreproiekturik ere Eusko Legebiltzarrean. Hori ez da euskal gizartea eta ordezkari politikoak harro sentiarazteko modukoa. Korrante aurrerakoienetik, modernoenetik eta protekzionistenetik urruntzen gaitu horrek, eta, zalantzarik gabe, korrante atzerakoi, zahar eta beste alde batera begiratzen duenera hurbiltzen gaitu.

Horregatik, duela bost urte ernamuin bat sortu zen alderdi politiko baten ekimenez, eta eskertzekoa da prozesu hori kapitalizatzen ez saiatu izana, ulertuz gizartearen eskuetan egon behar zuela eta behetik gora eraiki behar zela, era anitz eta

pluralean. EAEko elkarte-mugimenduak hartu zuen lekukoa, eta lan hori bere gain hartu du, federazio gisa antolatu arte aldarrikapen hori bultzatzeko. Horrela sortu zen **Euskal LGTBI+ Behatokia/Observatorio Vasco LGTBI+**.

Azken hiru urteotan elkarte eratzailleetako aktibistek lan handia egin dute, askotariko pertsona eta erakundeen lankidetzarekin. Beste autonomia-erkidego batzuetan izandako aurrerapenek erraztu digute, lan-metodo gisa, haietan jasotako proposamenak gaika biltzea, eta, proposamen horien azterketatik abiatuta, hemen eta orain Euskadin LGTBI+ pertsonok bizi ditugun premiak eta arazoak identifikatzea, gure errealitatera eta gure ingurunera egokitzeke.

Bide horretan, Behatokiak aukera baliatu du **proposamen zehatzak helarazteko Eusko Legebiltzarrari, izapidetzen ari diren eta LGTBI+ errealitatea aurreikusten ez duten edo garapen handirik gabe aipatzen duten lege-proiektuei buruz. Zehazki:**

- **Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera fisikoaren eta kirolaren lege-proiektua (2021eko azaroaren 9a, Eusko Legebiltzarraren sarrera-erregistroa 2021/7839).**
- **Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoaren Lege-proiektua (2021eko azaroaren 9a, Eusko Legebiltzarraren sarrera-erregistroa 2021/7835)**
- **Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legea bigarrenaz aldatzeko lege-proposamena (2022ko maiatzaren 2a, Eusko Legebiltzarraren sarrera-erregistroa: 2022/2698).**

Bilera-, eztabaida- eta negoziazio-ordu ugari izan dira, dokumentu-multzo batean oinarrituta, akordioak lortzeko eta gaur, **ekainaren 27an, 2022ko harrotasunaren bezperan**, publiko egin nahi ditugun proposamenak adosteko. Dagoeneko eskuragarri daude Behatokiko webgunean, deskargatzeko eta kontsultatzeko moduan:

<https://lgtbi-behatokia.eus/>



[Hezkuntza](#)



[Lana eta gizarte-erantzukizuna](#)



[Osasuna](#)



[Gizarte-gaiak](#)



[Nazioarteko babes, Migrazioak eta Nazioarteko lankidetz](#)



[Kultura, memoria historikoa, aisialdia, denbora libre, kirola, turismoa, hedabide sozialak, publizitatea, teknologia berriak, sare sozialak eta Internet](#)



[Administrazio publikoak](#)



[Euskal LGTBI+ Kontseilua](#)

Eta hori egiten dugu modu irekian proposatuz Eusko Legebiltzarreko taldeei eta EAEn erregistratutako LGTBI+ elkarte guztiei lan-mahai bateratu bat eratu dezagun 2022ko irailetik aurrera, Euskadik LGTBI+ pertsonak babesteko eta artatzeko lege-esparru propio bat izan dezan, lege espezifiko bat, Euskal LGTBI+ Lege Integral bat onartuz. Lan-mahai bat, non esku hartuko dugun alde guztiok aniztasun eta pluraltasun asoziatibo eta politikoa errespetatuko dugun, baldintza bakar batekin: errespetu zorrotza izatea giza eskubideen arloan.

Behatoki honetatik, landutako testuak **oinarri gisa eskaintzen ditugu erroka horri ekiteko**. Uste osoa dugu **ezin dugula zain egon Madrilen gertatzen denaren mende, ezta Estatu mailan onartzen diren legeen mende ere**, gure lurraldean maila horretan sozialki aurrera egiteko.

Lege-proposamen honen helburua da:

- **Prebenitzea. Eragozte**a Euskal Autonomia Erkidegoan, gayak, lesbianak, bisexualak, transexualak, transgeneroak edo intersexualak (LGBTI+) izateagatik, **egunero bizi ditugun diskriminazioak (askotan ikusten ez direnak) ahalbidetzen dituzten kausak**.
- Kolektibo honek jasaten dituen **bazterkeria- eta desberdintasun-modu espezifiko**ei arreta ematea. Gure ustez, **pedagogikoki baliagarria** izango da eguneroko bizitzan prestakuntza espezifikoa ematea eskatzen duten egoerak bistartzeko, eta sexu- eta genero-aniztasunaren arloan integrazioa, errespetua eta berdintasuna bermatzeko neurri zehatzak ezartzeko.
- **Esku hartu behar den eremuen heterogeneotasuna** aintzat hartzea: komunikabideak eta sare sozialak, hirugarren adinekoen egoitzak, kirol-klubak eta -zentroak, aisialdiko eta denbora libreko lokalak, arreta publikoko formularioak eta zerbitzuak, liburutegietako katalogoak eta liburu-funtsak, gizarte-zerbitzuen baliabideak, osasun-arreta, jardunbide egokiak enpresa publiko edo pribatuetan, administrazio guztien jardunean, hezkuntza-zentro eta -maila guztietan, espetxeetan eta psikiatrikoetan... Eta horrela, zerrenda hori amaiezina izan daiteke, baina **agerian uzten du zenbat espazio, esparru eta egoeratan gertatu ohi den diskriminazioa eta zenbatetan dagoen LGTBIfobia**.
- Balio izatea oso zuria, burgestua eta funtzionala den **Euskal LGBTI kolektiboak testuaren zeharkako ikuspegi**an txerta ditzan kolektiboaren **intersekzionalitatea ordezkatz**en dutenen **ahotsa eta protagonismoa**, hau da, diskriminazio anizkoitzari aurre egin behar diotenena. Pertsona horiek, beren orientazio afektibo-sexuala, sexu- edo genero-identitatea edo sexu-ezaugarriak direla eta jasaten duten diskriminazioaz gain, beste aldagai batzuegatik (jatorria, etnia, desgaitasun-egoera, dokumentaziorik eza, adina...) are zaurgarriago bihurtzen dira.

- **Ontzi komunikatuak sortzea administrazio publiko guztien, elkarteen eta lantzen diren eremuetan garrantzi egiaztagarria duten eragile guztien artean, Euskal Autonomia Erkidegoko LGTBI+ Kontseilua** sortuz. Behatokiarentzat oso garrantzitsua da azpimarratzea Kontseilu horretan **udalerriek zenbaterainoko parte-hartze maila** izatea nahi dugun. Batez ere **txikiek**, izan ere, hiru hiriburuek eta biztanlegune jendetsuenek baino baliabide gutxiago dituzte arlo horretako politika aktiboak gauzatu ahal izateko. Horrekin, bertan bizi diren herritarren beharrei erantzutea nahi dugu, eta sexilioa eragozte.
- **Kontuan izatea ageriko indarkeriak ugaritu direla: bereziki, gorroto-diskurtsoak eta -delituak. Ezin ditugu ahaztu gora egin duten eraso fisikoak.** Ez eta azken urtean gure historiako gertaera larrietako bat bizi izan dugula Bilbon gertatutako **gizon gay edo bisexualen hilketarekin** (oraindik kopurua zehazteko dago). Argitu gabe dauden gertaera horien inguruko isiltasun instituzional eta judizialak ezin du betiko iraun.
- Eta, azkenik, **duen helburua zigortzea edo pertsegitzea ez bada ere**, proposamenak **zehapen-araubide** bat jasotzen du –hainbat administrazio-arauk bezala–, Zigor Kodean jasota ez egoteagatik inolako lege-erantzunik ez duten **diskriminazio-egintzetarako**. Lege honen arabera, egintza horiek arau-hausteak izango dira (larritasun-maila desberdinekoak), eta isunak eta bestelako neurri alternatiboak ezartzea ekarriko dute, **arau-hauste horiek egiten dituzten pertsonekin zuzenean lan egiteko lehentasunezko ideian oinarrituta, LGTBI+ kolektiboarekiko barneratuta dituzten aurreiritziak eta estereotipoak deseraikitze**ko.

LGTBI+ lege integralaren proposamen honekin, azken batean, Euskadi **estalki batez hornitu** nahi dugu, herritar guztiak **babesteko gizarte-mailako, norbanakoek barneratutako eta instituzionalizatutako LGTBIfobiaren zirimiritik**, gure aukera pertsonal eta kolektiboak ahalik eta gehien garatzea ahalbidetu diezagun.

Ibilbide horri ekiteko azken autonomia-erkidegoa izatea ez da garrantzitsua izango, baldin eta portu onera iristeko borondate politikoa badago. Denbora luzea daramatenen esperientziak ditugu, haien akatsak saihesteko eta ondo egindakoak hobetu ahal izateko. Azkenak lehenengoak izan daitezke, aukerak aprobeztatzen badakite. Historiak esango digu horixe egin dugun.